

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 27a, astelehena ::: 4.626 zk. ::: www.kronika.net

2013KO URTEKARIA

Urtekaria aurkeztuko dute etzi udaletxean, 17 artikulurekin

Herritarrek idatzitako 16 artikulua eta 2012ko kronika biltzen ditu 2013ko urtekariak. Arratsaldeko 19:30etan aurkeztuko dute, Udaleko Areto Nagusian.

AKTUALITATEA, herriko taldeak, bitxikeriak, zeresana eman duten notiziak, betiko ohiturak... 17 artikuluk osatzen dute 2013ko urtekaria. Hernaniko Udalak osatu du liburuxka, eta etzi aurkeztuko dute, Udaleko Areto Nagusian. 19:30etan azalduko dituzte nondik norakoak

Ibilbide sarea, Asiako Liztorra, krisiak Hernanin duen eragina, Koxka elkartea, Iturmendiko jentil zuloa... dira lantzen diren zenbait gai.

eta gerturatzen diren herritarrek azalpenak entzun eta edizio bat eskuratzeko aukera izango dute.

Gai ugari

Herritarrek idatzitako 16 artikulua biltzen ditu urtekariak batetik eta 2012ko kronika, bestetik. Euskera eta gaztela-

niaz idatzitako artikulua dira. Hona hemen, zenbait izenburu: Hernaniko Ibilbide Sarea; *Vespa velutina* edo liztor beltza; Hernani Krisiaren atzaparretan; Koxka elkartea; Goiz Eguzki, mucho más que un hogar para jubilados; El caserío Bidaurreta; Iturmendiko jentil zuloa.. ||

ERRUGBIA - SANTBOIANA 34 - 15 HERNANI

Asko zuten biek jokoan eta azken minutura arte saiatu zen Hernani

Partidua parekatua izan zen. Atzoko porrota eta gero, gauzak asko zaildu dira atzeko postuetan.

BOST puntu baino zerbait gehiago zegoen jokoan atzo Santboianaren zelaian. Kataluniarrak izan ziren nagusi markagailuan 34-15 irabazi eta bonusa lortuta, baina berdegunean, ez zen hainbeste alderik egon.

Zazpigarren minutuan jarri zen Santboiana markagailuan aurretik. Entsaioa egin eta 7-0 aurreratu ziren; epaileak ontzat eman zuen kataluniarren entsaioa, nahiz eta aurretik marrazainak adierazi, Santboianako jokalariek batek marraz kanpo zapaldu zuela. Hernani hasieratik saiatu zen markagailuak erakusten zuen barrera hori gainditzeko, eta 22garren minutuan jaso zuten fruitua, Esnaolaren jokaldia eta Peio Perezen ostiakadari esker. Zigor kolpe

bana lortu zituzten gero bi taldeek; hernaniarrena Ekhi Aranburuk gauzatu zuen. Atsedenaldira 10-10 berdinduta iritsiko zirela zirudien, baina kataluniarrak aurreratu ziren: Baker erdilariak entsegu egin eta Puigek gauzatu zuen.

Zazpi puntu atzetik hasi zuen Hernanik bigarren zatia. Aurrenekoaren pareko joan ziren hasierako minutuak: entsegu bana egin zuten, hernaniarrena Jonesek. Bukatzeko minutu gutxiaren faltan, Santboianak dena eman eta bi entsaio egin zituen.

Lehia estua, atzean

Beheko postuetan are gehiago estutu da lehia. Datozen partiduetan lana eta borroka izango da, hernaniarren lema! ||



Santboiana nagusi izan zen azken minutuetan.

❖ KALDEREROAK

Entsaioak datozen hiru egunetan

Kaldereroen konpartsak larunbat gauean girotuko ditu Hernaniko kaleak. Konpartsan atera nahi dutenek entsaioak dituzte bihar, etzi eta ostegunean, arratsaldeko 20:00etan, Elur Txorin. ||

❖ UDALA

Udal Euskaltegiko zuzendari aldaketa aztergai, Plenoan

Bederatzi puntu izango ditu bihar Udalak deitu duen Plenoak, tartean: Udal Euskaltegiko zuzendari aldaketa, Udalaren plantillaren eta lanpostuen zerrendan aldaketak, eta abortoaren legearen inguruko mozioa. Areto Nagusian, 19:00etan. ||

Dirulaguntzak hizketagai, Kultura eta Turismo batzordean

Kultura eta Turismo batzordea deitu dute bihar Udalean. Aztergai izango dituzte, besteak beste: Dirulaguntzen justifikazioak eta 2014ko oinarririk, Inauterietako eta San Joanetako kartel lehiaketak... Bilera gelan, 18:00etan. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Inteligentzia emozionalari buruz hitzaldia, bihar

Nagore Vazquezek hitzaldia emango du bihar inteligentzia emozionalaren inguruan. Goiz Eguzkiko egoitzan izango da, 17:00etan hasita. ||

❖ DHITURA ZAHARRAK

Santa Agedako entsaioa, ostiralean

Ohitura Zaharrak abesbatza-ekin Santa Agedako buelta egin nahi dutenek entsaioa dute ostiralean; Biterin izango da, 20:00etan. ||

ZINKOENEA KIOSKOA

Eguneroko prentsa

Aldizkariak

Autobuserako
txartelen erreforma

Zinkoenea plaza, Hernani Telf: 943 55 07 92



DORRONSORO



OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:

⇒ Lizeaga 4an.

Ogia eta bolleria aukeran.

Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ Akarregi poligonoan, obradore nagusia, denda eta kafetegia.

Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

DORRONSORO

Ogi egin berria
beti zure eskura



☎ TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
☙ FARMAZIAK ● Egunez: ● Castilla Urbietan 7 - 943 552941 ● Gaeuz: ● Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Zaparradak botako ditu egun osoan. Haizea zakar ibiliko da eta temperatura nabarmen freskatuko da: Min.6° / Max.9°
BIHAR Giro ezatsegina eta nahasia espero da. Zaparradak botako ditu eta hotza izango da hizpide. Min.5° / Max.11°
(euskalmet)

AEK - ZILEGI ESKOLAK ENARA GOIKOETXEAREKIN

Harriak ukitu, mediatu eta nola erabili ikasteko, saio praktikoa gaur

Kristala eta energia izena dute Enara Goikoetxeak emango dituen bi saioak. Gaur Hernanin eta bihar Astigarragan.

KRISTALEN energiari buruzko teoria norberak etxean ikasi dezakeela dio Enara Goikoetxea hernaniarrak. Bi saio emango ditu Zilegi Eskolen barruan, eta bietan alde praktikoa landuko du. Gaur, Hernanin, 14:30-19:30; eta bihar Astigarragan, 09:30-11:30.

Goikoetxeak dio, praktika dela ikasi eta sentipena garatzeko bide bakarra: «kristalak, harriak... liburu ugari daude eta teoria asko era bai. Zaila izaten da zein erabilpen eman jakitea, kasuistika eta praktika lan-

tzea. Beraz, bi orduko hitzaldi edo saio hauetan, praktikari emango diot garrantzia, eguneroko bizitzan nola erabili ikasiko dugu. 15 minutuko praktika bati, 3 orduko teoriari baino probetxu gehiago ateratzen zaio».

Kontsultako kristalekin

Gorputz bakoitzak dituen energia zentroak eta euren arteko erlazioak zein diren ikasiko dute saiora animatzen direnek, praktikak erre-alak izango baitira: «kamila batean etzanda praktikatuko

dugu, kontsultan erabiltzen ditudan harriekin. Ukitu, mediatu eta nola erabili ikasiko dugu. Gure zentroak nola daude ikasi behar dugu, eta harriek nola orekatzen duten. Nola aktibatu eta nola lasaitu. Gorputzeko energia nola sentitu eta baloratu ere, ikasiko dugu».

Jarraipena, etxean

Saioa bukatuta, etxean ariketa horiek nola egin erakutsiko du Goikoetxeak: «egunero 15 minutu praktikatuta ikasiko du gehien ikasleak».

☞ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Txokotik Bilgunera

Badira 3 urte baino gehiago Hernaniko Txoko Feministan lanean hasi ginela. Hernaniko mugimendu feministan ez gara lehenengoak izan noski, eta aurretik egondako dinamika feministei jarraipena eman nahi izan diogu.

Denbora tarte honetan, feminismoan jantzi, Hernaniko dinamiketan eragin, emakumeon bizi baldintzak hobetzeko pausuak eman, iruditegi kolektiboak eraldatu, harreman ereduak zаланtzan jarri, eztabaidak piztu eta batez ere, kalean egon nahi izan dugu, esparru ezberdinak ikuspegi feministaz eraldatzeko helburuarekin.

Bide honetan ez gara inoiz

bakarrrik egon, feminismoa amarauna baita, inurri askok osatzen dutena, eta aliantzen filosofian oinarritzen dena. Euskal herriko txoko ezberdinetako talde feministekin batera lanean egotearen sentzazioa izan dugu beti. Hernanin ere, berdintasun kontseilua, Kafeta Feminista, Katxarraza, ... eta beste hainbat eragileekin harremana eraikitzen jarraitzen dugu.

Orain, pausu berri bat emateko gogoia eta beharra dugu. Herrira begiratzeari utzi gabe noski, Euskal Herriko beste talde feministekin artikulatzen jarraitu nahi dugu eta ikuspegi orokorrago batean ere txertatu. Horregatik, izaera nazionala

duen Euskal Herriko Bilgune Feministaren parte izatea erabaki dugu.

Uste dugu erabaki honek hausnarketa eta ekintza mar-koia asko aberastuko digula eta aliantzak indartuko ditugula. Ezinbestekoa iruditzen zaigun proiektu honetan asmoak eta energiak inbertitzeko gogoia ere badugu.

Beraz, hemendik aurrera HERNANIKO BILGUNE FEMINISTA bezala lan egingo dugu, helburu berdinekin eta bidelagun gehiagorekin. Parte hartu gurekin batera! Kalean topatuko gara!!!

Gora borroka feminista!!!

Ana Revuelta Andres
Heraniko Bilgune
Feministako kidea

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ESKU PELOTA - Udaberri torneo		
Emak. Euskal Liga	Elgoibar-Hernani	0-3	Kadeteak	Zumaia/Pagola-Berasarte	11-22
Mut. Erreg. Gor.	Lengokoak-Hernani	2-2	Kadeteak	Lazkano-Urruzola/Zestoa	12-22
Jub. Mut. Eu.	Antiguoko-Hernani	1-1	Jubenilak	Cisneros-Rodriguez/Tartaloetxe	22-4
Jub. Emak. Eu.	Añorga-Hernani	2-1	Seniorrak	Etxenike-Arizkorreta/Elbar	22-20
Kad. Mut. Oh.	Lengokoak-Hernani	2-0	ESKU PELOTA - Euskal Herriko Txapelketa		
Inf. Mut. Oh.	Lagun Onak-Hernani	2-3	Sub22	Huarte/Urkiizu-Altuna	5-22
Inf. Mut. 1.	Vasconia-Hernani	2-0	Seniorrak	San Sebastian-Markina	7-22
Seniorrak	Arrieta-Aizpitarte/Aurrera Saiaz	22-18	Seniorrak	Arrieta-Aizpitarte/Aurrera Saiaz	22-18
ERRUGBIA			ESKU PELOTA - Gipuzkoako Binakako Txapelketa		
Senior	Santboiana-Hernani	34-15	Seniorrak	Lopez-Esnaola/Usurbil	23-40
Emakumezkoak	Gaztedi-Hernani	14-10	Jubenilak	Cisneros-Rodriguez/Intza	34-40
Senior B	Hernani-Rioja	10-23	Infantilak	Zestoa/Laruburu-Gorrotategi	18-10
Mut. Euskal Liga	La Unica-Hernani	17-12	Infantilak	Oiarpe/Larrañaga-Salaberria	7-18
Kad. (sub18)	Zarautz-Hernani	5-33	Infantilak	Arizmendi-Insausti/Aurrera Saiaz	16-18
ERREMONTEA			Infantilak	Ezeiza II-Leiza/Macicior-Ezeiza	16-18
1go partidua	Otaegi-Larrañaga/Segurola-Labaka	35-24	Infantilak	Blanco-Rekondo/Zumaia	18-9
Master-Finala	Ezkurra-San Miguel/Urriza-Etxeberria III	40-21	Alebinak	Ziotza/Lasa-J.Garmendia	16-4
3. partidua	Juaristi-Olazar/Matxin III-Barrentxea IV	40-27	Alebinak	Eple/Perurena-E.Garmendia	16-15
4. partidua	Juanenea-Zubiri/Ezkurra II-Zubizarreta	28-30	Alebinak	Tejedor-Fre/Arrasate	13-16
WATERPOLOA			SASKIBALDIA		
Mutlak	Hernani-Maristas	14-6	Seniorrak	Hernani-Aletiko San Sebastian	52-53
Neskak	Hernani-Maristas	5-9			

❖ OBRAK

Txillida pasealekuan obrak, bihar eta etzi

Udalak jakinarazi du, eguraldia lagun bada, Txillida pasealekuko konponketa lanak bihar eta etzi egingo dituztela. Ondorioz, ibilgai-luentzat itxita egongo da 07:00etatik 15:00etara. ■

❖ ERAKUSKETA

‘Bat eginik’ erakusketa Biterin, bihartik

Eskultura eta pintura uztartzen ditu *Bat eginik* erakusketak. Jose Luis Elexpe ‘Pelex’ eta Sofia Arostegik jarri dute, eta Biterin izango da ikusgai bihartik. Otsailaren 11ra arte egongo da, arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara. Inaugurazioa ostiralean egingo dute, 19:15etan, *Verdini* dantza taldearen aktuzioarekin. ■

❖ KONTSUMO TALDEA

Barazki otarrak astean behin jaso nahi?

Kontsumo taldea bada Hernanin, eta orain arte, Imanol Arana izan da nolabait, ardura eman duena. Kontsumo taldean dauden 32 familiek barazki otarrak jasotzen dituzte. Udaberriari begira Urtzi Garcia hastekoa da eta taldea sortu nahi du, barazki ekolo-gikoak, otarretan, astean behin banatzeko. Interesa duten guztiekin bilera deitu dute etzi, Biterin, 19:30etan. ■

◆ FUTBOLA

Hernani erraz, Elgoibarren kontra

Emakumezkoen Ligan, azken sailkatuaren kontra jokatu zuen Hernanik atzo, eta erraz nagusitu ziren: 0-3. ■

◆ ESKU PELOTA

Asteburu gazi gozoa: 10 galdu eta 8 irabazi

Emaitzei begiratuta, ez da asteburu ona izan Hernaniko pelotarien-tzat, baina garaipen garrantzitsuak lortu dituzte. Euskal Ligan, Sub 22an, Urkizu eta Altunak, eta Arrieta eta Aizpitartek irabazi egin dute eta azken fasera sailkatzeko aukerekin jarraitzen dute. Gipuzkoa mailan, infantiletan, Larrañaga eta Salaberriak eta Blanco eta Salaberriak ere, azken faserako aukerekin jarraitzen dute. Udaberri torneoan, kadetetan, Pagola eta Berasartek partidurik galdu gabe jarraitzen dute. San Sebastianek galdu egin zuen; hala ere, sailka-tzeko aukera badu oraindik. Bukatzeko, Arizmendi eta Insaustik ere galdu egin zuten, eta zail jarri zaie txapelketa. ■

◆ SASKIBALDIA

Partidu berdinduan, donostiarrak nagusi

Hernanik Atletiko San Sebastianen kontra neurtu zituen indarrak asteburuan, eta ez zen alde askorik egon. Partidua oso berdindua joan zen, nahiz eta azkenean, donostiarrentzat izan zen garaipe-na: 52-53. ■

◆ PALA

Hernaniarrek irabazi gomazko paletan, eta galdu klub txapelketan

Hernanik 25-14 irabazi dio asteburuan Usurbili, gomazko paleta modalitatean; senior mailako partidua izan zen. Kadetetan, Euskal Herriko klub txapelketa ari dira jokatzeko eta bi taldeek galdu egin dute. Hernani A-k 8-30 galdu zuen Gure Pilota Bren kontra eta Hernani B-k 25-30 Gure Pilota Aren kontra. ■

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)